



IRAGARKIA

Irakaskuntza arautuko Elorriko Ikastetxeei zuzendutako 2025/2026 ikasturterako dirulaguntza deialdia onartzea, Elorrion erroldatutako ikasle bakoitzeko. (2026-00393 espedientea)

Alkateak, 2026ko otsailaren 13an emandako 86 zbkiko Dekretuaren bidez, irakaskuntza arautuko Elorriko Ikastetxeei zuzendutako 2025/2026 ikasturterako dirulaguntza deialdia onartzea erabaki zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrio, 2026ko otsailaren 24a

Julene Lazkano Zenitagoia
alkatea



DIRULAGUNTZAREN BERARIAZKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

IRAKASKUNTZA ARAUTUKO ELORRIKO IKASTETXEEI ZUZENDUTAKOA,
ELORRION ERROLDATUTAKO IKASLE BAKOITZEKO -2025/2026 IKASTURTEA-.
(2026-00393 espedientea)

Elorrioko Udalak 2008ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran onartu zituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak, 2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak. Zuzenketa batzuk onartu ondoren, osorik argitaratu ziren 2010eko maiatzaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 86. zenbakian.

1 Artikulua. Xedea

Oinarri hauen xedea da Elorrioko irakaskuntza arautuko ikastetxeek 2025/2026 ikasturtean zehar garatutako gaietarako erositako liburuak eta testu-liburuaren lizentzia digitalak, joko didaktikoak, ikasgaietarako material didaktikoa eta jarduera pedagogikorako den bestelako materiala, edota eskola eremutik kanpora burututako programek sortutako gastuetarako aurreikusitako dirulaguntzak arautzea. 2 urtera arteko gelak salbuetsita geratzen dira (haur-eskolak).

2. artikulua. Aurrekontu kreditua eta zenbatekoa

Oinarri espezifikoko horietan araututako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa urtero zehaztuko da aurrekontuan ezarritako aurrekontu-partidetan eta -izendapenetan.

Dirulaguntza hauek onartzeko dagokion kreditu erabilgarria 50.000,00 eurokoa da. Gastu hau 2026 ekitaldiko 3200.480.07 (Ikastetxeak) aurrekontu-aplikaziotik ordainduko da.

Hala badagokio, partida horiek dirulaguntzen emakidari aplikatu dakiokkeen zenbateko gehigarri batekin hornitu ahal izango dira, baina horretarako ez da beste deialdirik egin behar.

3. Artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hau irakaskuntza arautuko Elorrion helbideratutako bai ikastetxe publikoek, bai pribatuek eskatu ahal izango dute.

Onuradun horiek ezin izango dira egon Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako egoera eragozleetan.

Era berean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duenak, 2.4 artikuluan xedatzen du laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren erakunde pribatuek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17. artikulua (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4 artikulua (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dituztela, udalaren eta onuradunaren arteko harremanari dagokion denboran eta gailan.



Onuradun izateko debekua:

- Ezin izango dute eskaerarik aurkeztu, ezta onuradun izan ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean (bereziki 13. eta 14. artikuluetan) eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorrean jasotako egoera eragozleren batean daudenek.

- Ezin izango dira onuradun izan administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik zehapen irmoa jaso duten pertsonak edo erakundeak.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta egotea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, sexuagatiko diskriminazioa barne.

- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik diskriminatzen duten elkarte eta erakundeak.

4. artikulua. Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Modua

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona juridikoek Elorrioko Udalaren plataforma elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte eskabideak (www.elorrio.eus).

Pertsona fisikoek une oro aukeratu ahal izango dute eskabideak bitarteko elektronikoaren bidez aurkezten dituzten ala ez. Dokumentazioa paper bidez aurkeztea aukeratzen badute, Elorrioko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Elorrioko Erregistro Orokorra) aurkeztu ahal izango dute, Herriko Plazan, 08:00etatik 14:00etara, legeak aurreikusitako beste edozein modutan aurkez dezaketen arren.

Eskabidea aurkezteko epea

1.- Eskabide-orriak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.



Ezarritako epeak nahitaez bete behar dira, eta ez da salbuespenik egingo.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Nolanahi ere, dirulaguntza hau eskuratu ahal izateko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. Eskabide-orria, behar bezala beteta (I. eranskina). Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

Dirulaguntzaren xede den proiektuaren memoria, honako hauek zehaztuta:

- Deskribapena (helburuak, baliabideak, epeak...)
- Aurrekontu xehatua.
- Elorriko erroldatutako ikasleen zerrenda (izen-abizenak, helbidea eta jaioteguna).

b. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c. Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzea zuzenbidean baliozko den edozein bide erabiliz (notario-ahalardea, apud acta ordezkaritza...).

d. Zinpeko aitortpena, behar bezala beteta (II. eranskina).

e. Hirugarrenen alta-fitxa behar bezala beteta (III. eranskina). Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Dokumentu horiek ez dira aurkeztu beharko Elorrioko Udalak aurretik egindako deialdietan aurkeztu badira, eta betiere dokumentu horiek edo horietan islatutako datuak aldatu ez badira

Eskabidea aurkezteak berekin dakar oinarri eta deialdi hauen edukia baldintzarik gabe onartzea, bai eta eskatzaileak Elorrioko Udalari behar diren egiaztapenak egiteko baimena ematea ere, udal mailako zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzea barne.

Aurrez aipatutako agiriak ez dira aurkeztu beharko Elorrioko Udalak alde aurretik egindako deialdietan aurkeztu badira, eta agiri horiek edo horietan jasotako datuek aldaketarik izan ez badute. Atal honetan aurreikusitako kasuan, agiri/datu horiek dagoeneko udalaren esku daudela jakinarazi beharko da, aldaketarik izan ez izanaren zinpeko aitortpenarekin batera.

Nolanahi ere, Udalak, aipatutako dokumentazioaz gain, informazio gehigarria eskatu ahal izango die eskatzaileei.



Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen ez baditu, eskatzaileari 10 egun balioduneko epea emango zaio horiek zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko. Bestela, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela adieraziko zaio, eta artxibatu egingo da, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Balorazio-irizpideak eta zenbatekoa

1.- Dirulaguntzen zenbatekoak zehazteko balorazio-irizpideak honako hauek dira:

Ikastetxe onuradun bakoitzak Elorrion erroldatutako ikasle-kopuruaren zati proportzionala jasoko du. Ikasleak erroldatuta dauden jakiteko zerrendak, ofizioz, egiaztatuko ditu Udalak.

Deialdiak banatzea aurreikusi duen zenbatekoaren guztia (50.000,00 €) zatituko da Elorrion erroldatutako ikastetxe guztietako ikasle kopuruaren guztiaren artean (0-2 urte bitartekoak kenduta), eta emaitza izango da ikasleko emongo den dirulaguntzaren zenbatekoa.

Ikastetxe bakoitzari emongo zaion hasierako dirulaguntza aurreko paragrafoan azaldutako kalkulua egin ondoren ateratzen den zenbatekoa bider ikastetxeko eta Elorrion erroldatutako ikasle kopurua ateratzen dena izango da.

Ikastetxeko behin betiko dirulaguntza, ikastetxe onuradunak justifikazioko kontua oinarri hauen 9. artikuluan zehaztu den moduan aurkeztu ondoren zehaztuko da, gainfinantzaketarik inola ere ez dela onartuko. Gainfinantzaketa dagoen ikusteko honako datu hauek hartuko dira kontuan diruz lagundu behar den aurrekontua oinarri hartuta:

Elorrioko Udalak emondako dirulaguntza.

Erakunde publiko edo pribatuengandik jasotako dirulaguntzak edota laguntzak.

Dirulaguntza honen xede diren erosketak finantzatzeko jasotako diru-sarrera espezifikoak (materiala erosteko ikasleek ordaintzen dituzten kuotak,...).

2.- Diruz lagunduko den aurrekontua 1. artikuluan zehaztutako materiala edo jarduera pedagogikorako den beste material batzuk erosi ondorengo, edota eskola eremutik kanpora garatutako programen kostuek osatuko dute. Material hori eta programak ikasturtean zehar erositakoa edota garatutakoa izango da eta BEZA fakturatik kanpo geratuko da onuradunarentzako kengarria denean. Horretarako fakturen datak egiaztatuko dira.

Diruz lagunduko den gastuaren erosketa-prezioa ez da, inolaz ere ez, merkatuko balioa baino garestiagoa izango.

3.- Diruz lagundu behar den gastuaren zenbatekoak gainditzen dituenean Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotako zenbatekoak, hau da, kontratu txikientzat 40.000,00 € (BEZa kanpo) obra denean eta 15.000,00 €, (BEZik barik) hornidura eta zerbitzuak direnean, onuradunak obra egiteko, zerbitzua emoteko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik gutxienez hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu behar izango ditu, ez bada ezaugarri



bereziak direlako ez dagoela merkatuan behar beste erakunde kontratatu gura dena betetzeko, edo gastua egin dela dirulaguntzaren aurretik.

Hautaketa, jasotako eskaintzen artean –justifikazioa egitean aurkeztuko direnak dirulaguntza eskaera egin denean aurkeztu ez badira- eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera egingo da, eta hautatu den aurrekontua eskaintza ekonomiko onuragarriena izan ez bada memoria egingo da hautaketa justifikatzeko.

6. artikulua. Prozedura, Instrukzioa eta Erabakia

1.- Lehia-prozedura izango da.

2.- Eskabide-orriak aurkezteko epea itxi ondoren arloko zerbitzu teknikoek aurkeztutako eskabide-orriak eta agiriak aztertuko dituzte eta hasierako balorazioa egingo dute. Balorazio hori Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak txostena eta balorazioa ikusi ondoren diktaminatu egingo du eta Tokiko Gobernu Batzarrera bialduko du, honek erabakia hartzeko.

3.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emongo dio, eta erabakiaren kontra aukerako

berraztertze-errekurtsoa jar dakioko egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztiori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

7. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Dirulaguntza hau, helburu bera duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada diru-laguntzen berezitasunetako bat bateragarria ez izatea. Edozein modutan, gainfinantzaketa ezinezkoa izango da 5. artikulua jasotzen duen moduan.

8. artikulua. Ordainketa

Deialdiaren gaineko erabakia hartuta eta interesdunei erabakiaren gaineko jakinarazpena egin ondoren, hasieraz onartutako zenbatekoari dagokion %80a ordainduko da. Hau aurreordainketa izango da, eta ez da bermerik aurkezteko premiarik izango.

Ordainketa, transferentzia bidez, interesdunak emondako kontu zenbakian egingo da, gehienez, erabakia hartu den egunetik hurrengo hilabetearen barruan.

9. artikulua. Zuriketa



Modua

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona juridikoek Elorrioko Udalaren plataforma elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte eskabideak (www.elorrio.eus).

Pertsona fisikoek une oro aukeratu ahal izango dute justifikazioa bitarteko elektronikoaren bidez aurkezten duten ala ez. Dokumentazioa paper bidez aurkeztea aukeratzen badute, Elorrioko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Elorrioko Erregistro Orokorra) aurkeztu ahal izango dute, Herriko Plazan, 08:00etatik 14:00etara, legeak aurreikusitako beste edozein modutan aurkez dezaketen arren.

Justifikazioa aurkezteko epea

Justifikazioa aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da.

Ezarritako epeak nahitaez bete behar dira, eta ez da salbuespenik egingo.

Justifikazioa onartu ondoren, hala badagokio, onartutako zenbatekoari dagokion gainerako % 20a ordainduko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Ikasturtea, edo dirulaguntzaren xede zen programa edo jarduerak burutu ondoren dirulaguntza behar moduan erabili dela justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira eta gainfinantzaketarik ez dela egon egiaztatu beharko da.

2.- Justifikazioa, justifikazioko kontu bidez egingo dena, honako datu eta agiriek osatuko dute:

a. Justifikazio-eredua, behar bezala beteta (IV. eranskina). Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

- Dirulaguntzaren xede den programa edo jarduera gauzatzeari buruzko memoria zehatza.

- Egindako gastuen eta sarreraren zerrenda. Halaber, gastuen tiketen eta/edo fakturen jatorrizkoa edo kopia, bai eta ordainagiria ere. Horiek onuradunari zuzenduta egon beharko dute.

Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

Hala dagokionean, hornitzaileen justifikazioa, gutxienez hiru eskaintza eskatu izana eta eskaintza horien arteko aukeraketa eragin duen balorazioa, 5.3 artikuluan adierazitako moduan.

Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita gerakinetatik eratorritako interesen kasuan ere.



b. Hala badagokio, ordezkari-tza egiaztatzea zuzenbidean baliozko den edozein bide erabiliz (notario-ahalordea, apud acta ordezkari-tza...).

c. Zinpeko aitortpena, behar bezala beteta (II. eranskina).

10. artikulua. Publizitatea

Ikastetxe onuradunek Elorrioko Udaletik jasotako dirulaguntzaren publizitatea egingo dute uztailaren 21eko 887/2006 EDak, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamendua onartzen duena, aurreikusten duenari jarraituz.

Horretarako, onuradunek Elorrioko Udaletik jasotako dirulaguntzaren gaineko gorabeherak iragarki-oholean argitaratuko dituzte edota ikastetxeko beste edozein hedabidetan (ikastetxeko errebista, aldizkari, ...). Dirulaguntzaren gainean argitaratzen den informazioak diruz lagundutako jarduera deskribatuko du eta jasotako zenbatekoa.

Dirulaguntza jaso duen programak beste dirulaguntza batzuk jaso baditu eta onuraduna behartuta balego egoeraren gaineko publizitatea emotera, emondako dirulaguntzaren gaineko bitartekoak eta garrantzia beste diru iturri batzuei emon zaien bardinak izango dira.

11. artikulua- Onuradunen betebeharrak

- Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntzak emateko oinarri den jokabidea hartzea.

- Bete-kizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntzaren xedea bete dela ere.

- Kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapeneko eta -kontrol-eko jarduketak onartzea, eta aurreko jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia ematea.

- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntzarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik lortu bada, horren berri ematea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana-hi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik.

- Kontabilitateko liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikagarri zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan, bai eta dirulaguntzen



oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatze eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.

- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeenean.

- Dirulaguntzen deialdian ezartzen diren zabalkunde-neurriak hartzea, dirulaguntza emateko oinarri den proiektua, jarduera edo jokabidea Elorrioko Udalaren lankidetzarekin eta/edo finantzaketarekin gauzatzen dela jakinarazteko.

- Oinarri arautzaileen 42. artikuluan jasotako kasuetan jasotako funtsak itzultzea.

12.-artikulua Berdintasunaren arloko betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Diruz lagundutako jarduera guztietan komunikazio inklusiboa erabiltzea, hau da, ez da erabiliko pertsonak sexuagatik, generoagatik, jatorriagatik edo bestelakoengatik umiliatzen, degradatzen edo estereotipatzen dituen irudirik edo idatzizko adierazpenik. Pertsonen berdintasuna eta aniztasuna irudikatuko duten irudiak eta hizkuntza sustatuko dira.

- Memoretan, hala badagokio, onuradunen gutxi gorabeherako kopurua generoaren arabera bereiztea, baita haien profila ere: gazteak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak...

- Erabiliko diren material guztietan ez da estereotipo sexistarik edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik agertuko.

- Erakunde onuradunek neurriak izatea sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokabide transhomofobikoa prebenitzeko eta artatzeko.

- Hala badagokio, diruz lagundutako proiektu orok genero-ikuspegia txertatzea fase guztietan.

13. artikulua- Ebazpen-epea eta berri ematea

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hartutako erabakia jakinaraziko da, baiezko zein ezezko kasuetan.

14. artikulua- Arau-hausteak, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteak egitea, zehapenak ezartzea eta dirua itzultzeko arrazoiak Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege



Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira.

Prozedura izapidetzean, interesdunari entzuteko eskubidea bermatuko da.

Edozelan ere, jasotako zenbatekoa itzuliko da justifikatzeko agiririk aurkeztu ez denean, edo behar moduan justifikatu edo behar beste agiri aurkeztu ez denean. Osorik bete ez denean, ez-betetzeari dagokion zenbatekora mugatuko da itzulketa. Bardin egingo da gainfinantzaketa dagoela egiaztatzen bada dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako agirietan.

15. artikulua. Datu-babesa

Elorriko Udalak (aurrerantzean, "Udala") (IFZ: P-4803900-B; helbidea: Herriko plaza z/g (48230) Elorrio, Bizkaia), dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko helburuarekin, emandako datu pertsonalak tratatuko ditu. Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorratik eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretutik eratorritako legezko betebeharrak bat betetzea da tratamendu horren oinarria.

Datu horiek behar-beharrezkoak diren zerbitzuak ematen dituzten hirugarrenei baino ez zaizkie jakinaraziko, eta ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo interes publikoa izan ezik.

Elorriko Udalak datu pertsonalak gordeko ditu erantzukizunen bat eska dakioken legezko epean.

Dirulaguntzen deialdi honetan eskatutako datuak aurrez jakinarazitako helburua behar bezala lortzeko behar-beharrezkoak direnak dira; beraz, datu horiek eman ezean, Udalak ezin izango du bermatu prozeduran behar bezala parte hartuko duenik.

Nolanahi ere, interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu, alkatea@elorrio.eus helbidera idatziz bidalitako eskaeraren bidez. Interesduna Udaleko Datuak Babesteko Ordezkariekin (DPO) harremanetan jarri ahal izango da dpo@elorrio.eus helbide elektronikoan.

Era berean, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzula.

16. Klausula gehigarria

Oinarri espezifiko hauetan berriaz jasotzen ez den guztirako, Elorriko Udalaren Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileetan xedatuta egongo da.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak eta horrekin bat datozen gainerako lege-xedapenek arautuko dute.

17. Araubide juridikoa



Elorrioko udala

**Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza**

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorrean (2010eko maiatzaren 10eko BAO, 86 zk.), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotakoa aplikatuko da.



I. Eranskina/ Anexo I

**ELORRIKO IRAKASKUNTZA ARAUTUKO IKASTETXEEI
ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZA ESKABIDEA, 2025/2026
IKASTURTEAN UDALERRIAN ERROLDATUTAKO IKASLE
BAKOITZEKO**

SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DESTINADAS A LOS CENTROS DE
ENSEÑANZA REGLADA DE ELORRIO, POR ESTUDIANTE
EMPADRONADO EN EL MUNICIPIO -CURSO ESCOLAR 2025/2026

ESKATZAILEA – SOLICITANTE

Izen-abizenak – Nombre y apellidos	NAN - D.N.I.
Generoa: emakume <input type="checkbox"/> gizona <input type="checkbox"/> ez bitarra <input type="checkbox"/> Género: mujer <input type="checkbox"/> hombre <input type="checkbox"/> persona no binaria <input type="checkbox"/>	
Helbidea – Domicilio	Tfnoa. – Tfno.
Kargua – Cargo	

**HONAKO IKASTETXE HAU ORDEZKATZEN DUELA – EN REPRESENTACIÓN DEL
CENTRO DE ENSEÑANZA**

Izena – Denominación	NIF – C.I.F.
Helbidea – Domicilio	
Tfnoa. – Tfno.	Faxa - Fax
Helbide elektronikoa – Correo electrónico	
Ekarri beharreko dokumentazio atzeko aldean irakur itzazu.	Vea al dorso la documentación a adjuntar.

Elorrio, _____
(data – fecha)

(sinadura - firma)



<p>DOKUMENTAZIO ETA DATU EGIATZAGARRIAK (Ez dira aurkeztu behar) DOCUMENTACIÓN Y DATOS VERIFICABLES (No se debe aportar) Elorrioko Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen interesdunen datuetan, zuk berariaz kontrakorik esan ezean. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu. El Ayuntamiento de Elorrio, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, salvo que usted se oponga expresamente. En cuyo caso deberá aportar la documentación.</p>		
Datuak eta dokumentuak	UKO EGITEN DIOT ME OPONGO	Datos o documentos
<ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailaren NANA 	<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"> • DNI de la persona interesada
<ul style="list-style-type: none"> • Zerga-betebeharrak egunean izatea 	<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"> • Estar al corriente en las obligaciones tributarias
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean izatea 	<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"> • Estar al corriente en el pago de las obligaciones con la Tesorería General de la Seguridad Social.
<p>Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut: Me opongo a la consulta de mis datos alegando los siguientes motivos:</p>		
DATUAK BABESTEKO INFORMAZIOA		INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS
<p>Arduraduna: Elorrioko Udala.</p> <p>Helburua eta datuak gordetzeko epeak edo irizpideak: Dirulaguntzak izapidetzea.</p> <p>Legitimazioa: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokoretik eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokoretik eratorritako legezko betebeharra.</p> <p>Hartzaileak: Ez zaie daturik emango hirugarrenei, salbu eta legeak hala agintzen badu.</p> <p>Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatu ahal izango ditu, baita beste eskubide batzuk erabili ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.</p> <p>Informazio gehigarria: http://www.elorrio.eus</p> <p>Lege-erreferentzia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.</p> <p>Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa IRAKURRI DUT, eta eskatutakoarekin ADOS NAGOELA adierazten dut.</p>		<p>Responsable: Ayuntamiento de Elorrio.</p> <p>Finalidad y plazos o criterios de conservación de los datos: Tramitación de las subvenciones.</p> <p>Legitimación: Obligación legal derivada de la Ley General de Subvenciones y de la Ordenanza General Municipal de Subvenciones.</p> <p>Destinatarios: No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal.</p> <p>Derechos: Podrá acceder, rectificar y suprimir los datos, así como ejercer otros derechos, según se explica en la información adicional.</p> <p>Información adicional: Puede consultarse en http://www.elorrio.eus</p> <p>Referencia legal: Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.</p> <p>HE LEÍDO la información básica sobre protección de datos y manifiesto mi CONFORMIDAD con lo solicitado.</p>



Elorrioko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

<p>Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, nik egiten dut, Elorrión, 20..... (e) ko..... aren..... (e) (a) n. Sinadura: Ordez kariaren izen-abizenak Elkarteko kargua</p> <p>Elkartearen zigilua (hala badagokio)</p>	<p>Y para que así conste y surta los efectos oportunos lo extiendo yo, en Elorrio a de de 20.....</p> <p>Firma: Nombre y apellidos del/de la representante Cargo en la asociación</p> <p>Sello de la asociación (si procede)</p>
---	--



EKIMENAREN MEMORIA
MEMORIA DEL PROYECTO

EKIMENAREN MEMORIA – MEMORIA DEL PROYECTO

- Ekimena deskribatu (helburuak, baliabideak, epeak...) / Describe el proyecto (objetivos, recursos, plazos...)



Elorrioko udala

Ikastetxei diruliaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

Aurrekontu xehatua adierazi/ Concrete el presupuesto detallado

GASTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE GASTOS *

Zb Nº	HORNITZAILEA / ACREEDOR		GASTUAREN KONTZEPTUA CONCEPTO GASTO	ZENBATEKOA IMPORTE
	IZENA / NOMBRE	IFK / CIF		
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
GASTUEN ZENBATEKOA / TOTAL GASTOS				



Elorrioko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

DIRU-SARREREN ZERREDA / RELACIÓN DE INGRESOS

	KONTZEPTUA (kuotak, beste diru-laguntzak...)/ CONCEPTO (cuotas, otras subvenciones...)	ZENBATEK OA / IMPORTE
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
DIRU-SARREREN ZENBATEKOA / TOTAL INGRESOS		

* Beste Administrazio Publikoek emandako diru-laguntzen ebazpenen kopia atxiki, hala badagokio / Adjuntar la copia de la resolución de las subvenciones recibidas de otras Administraciones, en su caso.

Elorrio, _____

(data – fecha)

(sinadura - firma)



Elorrioko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

Erantsi Elorriion erroldatutako ikasleen zerrenda, izen-abizenak, helbidea eta jaioteguna adierazita / Adjunte el listado del alumnado empadronado en Elorrio indicando el nombre y apellidos, domicilio, y fecha de nacimiento.

	IZEN-ABIZENAK/ NOMBRE Y APELLIDOS	HELBIDEA / DOMICILIO	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO
1			
2			
3			
4			
5			
6			
7			
8			
9			
10			
11			
12			
13			
14			
15			
16			
IKASLEEN ZENBATEKOA GUZTIRA / NÚMERO TOTAL DEL ALUMNADO			



<p>Erantsi beharreko dokumentazioa</p> <p><input type="checkbox"/> a. Eskabide-orria, behar bezala beteta (I. eranskina). Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:</p> <p>Dirulaguntzaren xede den proiektuaren memoria, honako hauek zehaztuta:</p> <ul style="list-style-type: none">- Deskribapena (helburuak, baliabideak, epeak...)- Aurrekontu xehatua.- Elorriko erroldatutako ikasleen zerrenda (izen-abizenak, helbidea eta jaioteguna). <p><input type="checkbox"/> b. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> c. Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzea zuzenbidean baliozko den edozein bide erabiliz (notario-ahalordea, apud acta ordezkaritza...).</p> <p><input type="checkbox"/> d. Zinpeko aitortpena, behar bezala beteta (II. eranskina).</p> <p><input type="checkbox"/> e. Hirugarrenen alta-fitxa behar bezala beteta (III. eranskina)</p> <p>Datuen babesa</p> <p>Zure datu pertsonalak fitxategietan sartuko dira, dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak balia ditzakezu Gernikako plazako 1 zenbakian dagoen Udaletxeko Erregistrora idazki bat bidaliz.</p>	<p>Documentación a adjuntar</p> <p><input type="checkbox"/> a. Impreso de solicitud debidamente cumplimentada (Anexo I) que, al menos, incluirá:</p> <p>Memoria del proyecto objeto de subvención en la que se detallará lo siguiente:</p> <ul style="list-style-type: none">- Descripción (objetivos, recursos, plazos...)- Presupuesto detallado.- Listado del alumnado (nombre y apellidos, domicilio, y fecha de nacimiento) empadronado en Elorrio. <p><input type="checkbox"/> b. Certificación de estar al corriente de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social.</p> <p><input type="checkbox"/> c. En su caso, acreditación de la representación mediante cualquier medio válido en derecho (poder notarial, representación apud acta...).</p> <p><input type="checkbox"/> d. Declaración jurada debidamente cumplimentada (Anexo II).</p> <p><input type="checkbox"/> e. Ficha de alta de terceros debidamente cumplimentada (Anexo III)</p> <p>Protección de datos</p> <p>Sus datos personales se incluirán en ficheros con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones. Puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 dirigiendo un escrito al Registro del Ayuntamiento, en Gernikako plaza, 1.</p>
---	--



II ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

..... jaunak/andreak,..... NAN zenbakia duenak, bere izenean eta..... ordezkatzen duen ikastetxearen izenean (IFZ:.....), Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2024ko buruz argitaratutako deialdiaren eta dirulaguntzen oinarrien berri izan duenak.

ADIERAZTEN DUT:

- 1) Ez gaudela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan ezarritako dirulaguntzen onuradun izateko bateraezintasun- edo debeku-kausetan.
- 2) Egunean ditugula zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- 3) Elorrioko ikastetxe arautuetarako deialdiaren eta dirulaguntzen oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ditugula udalerrian erroldatutako ikasle bakoitzeko – 2025/2026 ikasturtea –.
- 4) Honako kasu hauetako batean gaudela (adierazi X batez dagokion laukitxo eta bete, helburu beragatik dirulaguntza jaso badu):

Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak ESKATU ditu:

Emon duen organoa	Eskatutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasun
1.		
2.		
3.		

Honako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak JASO ditu:

Emon duen organoa	Lortutako zenbatekoa	Bateragarritasuna edo bateraezintasun
1.		
2.		
3.		

Ez du beste inolako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide eskatu inbertsio honetarako ez erakunde publiko batean, ez pribatuan, nazionala edo nazioartekoan.

5) Ez dugula zehapen irmorik administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik.



Elorriko udala

**Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza**

6) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako betebeharrak betetzen ditugula.

Eta honela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak sor ditzan, nik sinatzen dut, 2026koren ..(e)(a)n.

Sinadura



IV. Eranskina/ Anexo IV

**ELORRIKO IRAKASKUNTZA ARAUTUKO IKASTETXEEI
ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA, 2025/2026
IKASTURTEAN UDALERRIAN ERROLDATUTAKO IKASLE
BAKOITZEKO**

JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIÓN DESTINADAS A LOS CENTROS DE
ENSEÑANZA REGLADA DE ELORRIO, POR ESTUDIANTE
EMPADRONADO EN EL MUNICIPIO -CURSO ESCOLAR 2025/2026

ESKATZAILEA – SOLICITANTE

Izen-abizenak – Nombre y apellidos Generoa: emakume <input type="checkbox"/> gizona <input type="checkbox"/> ez bitarra <input type="checkbox"/> Género: mujer <input type="checkbox"/> hombre <input type="checkbox"/> persona no binaria <input type="checkbox"/>	NAN - D.N.I.
Helbidea – Domicilio	Tfnoa. – Tfno.
Kargua – Cargo	

**HONAKO IKASTETXE HAU ORDEZKATZEN DUELA – EN REPRESENTACIÓN DEL
CENTRO DE ENSEÑANZA**

Izena – Denominación	NIF – C.I.F.	
Helbidea – Domicilio		
Tfnoa. – Tfno.	Faxa - Fax	Helbide elektronikoa – Correo electrónico

Ekarri beharreko dokumentazio atzeko aldean irakur itzazu.	Veá al dorso la documentación a adjuntar.
---	---

Elorrio, _____



Elorriko udala

**Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza**

(data - fecha)

(sinadura - firma)



Elorriko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

EKIMENAREN MEMORIA
MEMORIA DEL PROYECTO

EKIMENAREN MEMORIA – MEMORIA DEL PROYECTO

- Programa edo jarduera gauzatzeari buruzko memoria zehatza adierazi /
Describe la memoria detallada de la ejecución del programa o actividad



Elorrioko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

Zehaztu egindako gastuen eta diru-sarreraren zerrenda / Concrete la relación de gastos e ingresos realizados.

GASTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE GASTOS *

Zb Nº	HORNITZAILEA / ACREEDOR		GASTUAREN KONTZEPTUA CONCEPTO GASTO	ZENBATEKOA IMPORTE	ORDAINKETAREN MODUA (Eskuz, transferentzia bidez...) MODO DEL PAGO (En mano, mediante transferencia...)	ORDAINKETAREN EGUNA FECHA DEL PAGO
	IZENA / NOMBRE	IFK / CIF				
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						
13						
14						
GASTUEN ZENBATEKOA / TOTAL GASTOS						

* Jatorrizko fakturak edo fakturen kopia konpulsatuak atxiki eta zutabe batean ageritzen diren zenbakien arabera ordenatu / Adjuntar las facturas originales o copias de las facturas compulsadas y ordenarlas de acuerdo con la numeración de la columna 1.



Elorrioko udala

Ikastetxei dirulaguntzak
Subvenciones a centros de enseñanza

DIRU-SARREREN ZERRENDA / RELACIÓN DE INGRESOS

	KONTZEPTUA (kuotak, beste diru-laguntzak...) / CONCEPTO (cuotas, otras subvenciones...)	ZENBATEK OA / IMPORTE
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
DIRU-SARREREN ZENBATEKOA / TOTAL INGRESOS		

* Beste Administrazio Publikoek emandako diru-laguntzen ebazpenen kopia atxiki, hala badagokio / Adjuntar la copia de la resolución de las subvenciones recibidas de otras Administraciones, en su caso.

Elorrio, _____

(data – fecha)

(sinadura - firma)



<p>Erantsi beharreko dokumentazioa</p> <p><input type="checkbox"/> a. Justifikazio-eredua, behar bezala beteta (IV. eranskina). Gutxienez, honako hauek jasoko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Dirulaguntzaren xede den programa edo jarduera gauzatzeari buruzko memoria zehatza.- Egindako gastuen eta sarreraren zerrenda. Halaber, gastuen tiketean eta/edo fakturen jatorrizkoa edo kopia, bai eta ordainagiria ere. Horiek onuradunari zuzenduta egon beharko dute. <p>Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.</p> <p>Hala dagokionean, hornitzaileen justifikazioa, gutxienez hiru eskaintza eskatu izana eta eskaintza horien arteko aukeraketa eragin duen balorazioa, 5.3 artikuluan adierazitako moduan.</p> <p>Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita gerakinetatik eratorritako interesen kasuan ere.</p> <p><input type="checkbox"/> b. Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzea zuzenbidean baliozko den edozein bide erabiliz (notario-ahalordea, apud acta ordezkaritza...).</p> <p><input type="checkbox"/> c. Zinpeko aitortpena, behar bezala beteta (II. eranskina).</p> <p>Datuen babesa</p> <p>Zure datu pertsonalak fitxategietan sartuko dira, dirulaguntzen deialdi hau kudeatzeko. 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak balia ditzakezu Gernikako plazako 1 zenbakian dagoen Udaletxeko Erregistrora idazki bat bidaliz.</p>	<p>Documentación a adjuntar</p> <p><input type="checkbox"/> a. Modelo de justificación debidamente cumplimentada (Anexo IV) que, al menos, incluirá:</p> <ul style="list-style-type: none">- Memoria detallada de la ejecución del programa o actividad objeto de subvención.- Relación de gastos e ingresos realizados. Así como, el original o copia de los tickets y/o facturas de los gastos, así como su justificante de pago. Estas deberán de estar dirigidas a la beneficiaria. <p>En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.</p> <p>Cuando proceda, justificación de los proveedores de haber solicitado al menos tres ofertas y de la valoración que hubiera motivado la elección entre ellas, en los términos señalados en el artículo 5.3.</p> <p>En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.</p> <p><input type="checkbox"/> b. En su caso, acreditación de la representación mediante cualquier medio válido en derecho (poder notarial, representación apud acta...).</p> <p><input type="checkbox"/> c. Declaración jurada debidamente cumplimentada (Anexo II).</p> <p>Protección de datos</p> <p>Sus datos personales se incluirán en ficheros con la finalidad de gestionar la presente convocatoria de subvenciones. Puede ejercer los derechos que reconoce la Ley Orgánica 15/1999 dirigiendo un escrito al Registro del Ayuntamiento, en Gernikako plaza, 1.</p>
--	---

